

HERRI MOZOLOTUA IZATEARI UTZI

Soroak ereiten dituzue, hark suntsi ditzan; altzariz betetzen eta egokitzen etxeak, haren harrapakaria hornitzeko; alabak hezten dituzue, haren lizunkeria asetzeko; semeak elikatzen dituzue, hark soldadu bihurtu ditzan eta gerrara bidali sarraskitzat, edo haren dirugosearen ministro izan daitezen, edota haren mendekuen gauzatzaile.

Étienne de La Boétie eta Alexandra Kollontai: bata Frantziako errenazimenduko idazle eta pentsalaria eta bestea Errusiako iraultzaile marxista, genero auziari ekarpen handiak egin zizkiona. Pertsona ezberdinak, herrialde ezberdinetakoak, garai ezberdinetakoak, klase sozial ezberdinetakoak, genero ezberdinekoak, ideologia ezberdinekoak, baina, finean, oinarrizko ideietara joz, mundu ikuskera bat partekatzen zutenak: morroitzarik eta zapaldurik gabeko mundua. Jarraian, De La Boétieren “Borondatezko morroitzari buruzko mintzaldia” eta Kollontaiaren “Vasilisa Malygina” eleberritik abiatuz, hausnarketa xume bat egingo dut.

Beti egon omen dira tiranoak eta morroiak, gutxiengo boteredun bat gehiengo zapaldu baten aurka. De La Boétiek argi uzten du hori bere mintzaldian, bata bestearen atzetik aipatzen dituen adibideetan ikus daitekeen bezala. Gizartea antolatzeko modurari buruz mintzo da, tiranoek botereari eusteko duten krudeltasunari buruz, erregeek gobernaturiko sistema (gogoratu XVI. mendean gaudela) injustua dela adieraziz. Halere, ikuspuntu interesgarri bat aurkeztu du, errealitatea deskribatzerakoan tiranoari ez ezik honi men egiten dion herriari ere erreparatzen baitio. Alegia, sistemari buruz hitz egiterakoan herritarren erantzukizunari buruz hausnartzen du, eta hain zuzen ere, hortik dator testuak izenburutzat duen “Borondatezko morroitzari buruzko hitzaldia”.

Izan ere, De La Boétieren ustez “herriak berak moztu du bere lepoa”, tiranoarekiko morroitzari borondatez harturiko erabaki gisa aurkeztuz. Horrela esanda, atenzioa ematen du: hasiera batean, hori irakurtzerakoan, astakeria bat zela pentsatu nuen. Azken batean, inork ez du ezagueraz erabakitzen norbaiten menpe bizitzea. Inork ez du erabakitzen zein familiatan jaio, eta hori da egiazki, jaiotzen zaren posizio soziala eta ingurunea (bere zentzurik zabalenean), boterearekiko duzun harremana zehaztuko duena. Non jaioak izan garen baldintzatzen gaitu; egiten ditugun gauzetako asko eta asko ez daude gure esku. Morroitzari inposatua da, ez da inondik inora ere erabaki bat, pentsatu nuen. Gerora, ordea, ulertu dut hasieran egindako irakurketa sinpleegia zela: egiazki, De La Boétieren ideiarekin atzean herritarren boterearen aldarrikapena dago, nahi izanez gero, herriak tiranoa

garaitzeko duen ahalmenaren aldarrikapena. Zentzu honetan testuak zeresan handia duela uste dut, hare gehiago iraultza handiak gertatu aurretik idatzia izan zelako. Halere, iruzkin pare bat egin nahiko nituzke honi buruz.

Alde batetik, kolektiboaren beharra eta indarra azpimarratu nahi ditut, erabaki individual batek ez baitu ezer ere aldatzen bere horretan, besteekiko harremanen baitan ematen ez bada. Alegia, morroitzaren inposatu honi aurre egitea erabakitzen badugu ere, ez dugu deus lortuko erabaki hau orokortua ez den bitartean, eta zentzu honetan berebiziko erantzukizuna dute boterearekiko kritikoak direnak, haien esku baitago hein handi batean gainontzekoen aurrean boterea biluztu eta herritarrek kontzientzia hartzea.

Beste aldetik, esandakoari jarraituz, erabakitzeak haratago, ekintzara igarotzea funtsezkoa iruditzen zait. Izan ere, boterearen aurkako pentsamendua oso zabaldua egon harren honek ez du aldaketarik ekarriko masa kritiko hau antolatu eta borrokatzeko gai ez bada. Hori dela eta, tiranoarekiko morroitzarekin bukatzeko borondatea lehen urratsa bada ere, tiranoa garaitzeko ekintzara igaro behar dela esatea ere oso garrantzitsua iruditzen zait.

Erabaki hau hartzerako garaian, ordea, funtsezko gauza bat kontuan izan beharra dago: tiranoek herritarrak matxinatu ez daitezkeen dituzten baliabideak. Horien artean, beldurra da tresnarik nabarmenena, tiranoaren aurkako jarrera hartuz gero jasan daitezkeen errepresaliekiko beldurra. Tiranoa ahalguztiduna da, garaitezina zapalduaren begietan. Eta pentsamendu hau indartzen du berarekiko ezjakintasunak. De La Boétienek dioen bezala, Asiriako erresumaren garaian herritarrak “inork inoiz ikusi gabeko izaki baten beldurrez bizi ziren”. Gaur egun ere, agerikoa da egoera hau, demokrazia mozorroturiko Estatuak inork ezagutzen ez dituen korporazio, oligarka eta enpresari handiek maneiatuak daudelarik. Maiz ez dugu gure nagusia ezagutzen, eta nor den jakinda ere, bere irudi lauso bat besterik ez zaigu heltzen. Nahikoa da, ordea, berari beldurra izateko: lana badugu kaleratuak izateko, lanik ez badugu sekula ere lanik ez aurkitzeko, kartzelara joateko, isunak jasotzeko; beldurra diogu gosea pasatzeari, edo gehiegi jan eta gizentzeari, bakarrik egoteari, edo besteek pentsatuko dutenari... argi dago beldurrak eragin handia duela gure egunerokoan, eta gure erabakietan zuzenean eragiten duela.

Beldurra ez da, halere, tiranoak boterea mantentzeko duen tresna bakarra. Alde horretatik, oso interesgarria iruditu zait Ziriok lidia-irriburua bereganatzean bere jabetza ziurtatzeko aurkitu zuen modua: “burdelak, tabernak eta jokaleku publikoak ezarri zituen, eta agindu eman zuen herritar guztiak haietara sar zitezkeen. Hain ondo atera zitzaion hura, non, aurrerantzean, ez baitzuen ezpatarik erabili behar izan lidia-irriburua”. Herritarrak errealitateaz ahaztu eta itsuturik edukitzea, horixe Zirioren helburua. Aldous Huxleyren “Bai

mundu berria” eleberriko biztanleek soma droga hartzen duten moduan bideratu zituen herritarrak taberna eta burdeletara, denbora-pasa horiekin errealitateaz jabetu ez zitezten. Gaur egun ere, bururatu diezazkigukeen edozein jardueratara eta denbora-pasetara bideratuak izaten gara, futbola, reality showak edo sare sozialak kasu. Kollontaik sutsuki defendatzen zuen marxismoak berak ere langileria otzantzeko modu honi izena jarri zion: alienazioa. Hala da, bai, alienatuta bizi gara, itsututa.

De La Boétienek “herri mozolotua” deitzen dio hala bizi den herriari, edota “herri ezjakina”. Bertako herritarrek berezko egoeratzat jotzen dute jaiotzen direnetik ezagutzen duten mundua. Beste ezer ezagutu ezean ez dira jabetzen nola bizi diren, nola bizi diren tiranoaren menpe. Horregatik, esango nuke *beste*a behar dugula gu garena zehazteko, gu soilik ez baikinakeke gai izango zer garen edo nola bizi garen ikusteko. De La Boétienek dioen bezala, “ilunpetan jaiotzen denak ez du argirik desiratzen”. Finean, hitz jokoarekin jarraituz, argiari buruzko ezagutza izateak ekartzen digu argitan bizitzeko nahia. Lehen aipatu dugunari jarraiki, morroiak garela jakitun izanik soilik erabaki ahalko dugu morroitza horrekin bukatzea. Hemen, nire ustez, jakintzaren beharra agerian geratzen da: jakintzak ematen digu askatasun gosea, gure inguruan gertatzen den ezertaz ez jabetzeak gure existentzia alienazio konstante batera mugatzen duen bitartean. Errealitatearen (egiaren) ezagutzak soilik eman diezaguke askatasuna, edo behintzat, horren alde borrokatzeko indarra.

Ezagutzari buruz ari garela, beharrezkoa zaigu hezkuntzari buruz hitz egitea, honen esku baitago, hein handi batean, guk jakintza eskuratzea. Hezkuntza zentzu zabal batean ulertzen dut, ez soilik eskola eta unibertsitateen bidez jasotzen duguna, baizik eta etxean, artearen bidez, lagun artean, eta finean, inguratzen gaituzten kultura eta harremanen bitartez jasotzen duguna. Gizakiongan hezkuntzak eta kulturak duen eragina ezagututa, ez dago esan beharrik zein garrantzitsuak diren edozein aldaketa lortu nahi bada.

Argi dago gizartea eraldatu eta tiranoari aurre egiterakoan botereak erabiltzen dituen dominazio tresna guztiei aurre egin behar zaiela. Orain arte horietako batzuk aipatu ditut eta jarraian horietako beste bati buruz hitz egin nahiko nuke: harremanei buruz, hain zuzen ere, gure egunerokoan sortzen ditugun harremanak erabat baldintzatuak baitaude bizi dugun sistemagatik. Jarrera indibidualistek gure harremanak logika kapitalista eta patriarkal batzuen baitan eraikitzen garamatzate, jendea gure interesen arabera erabiliz, maitasun erromantikokoan oinarrituriko harremanak eraikiz, edota *tinder* bezalako bidez harreman sexualak betaurreko kontsumista batzuekin ulertuz (hartu, erabili, bota: geratu, txortan egin, agur).

De La Boetinek dioen bezala, egiazko adiskidetasun bat bestearekiko zintzotasunean oinarritzen da, eta ez bata besteari egiten dizkion mesedeetan. Hori dela eta, tiranoen harreman guztiak faltsutasunean oinarritzen direnez gero, tiranoak bakarrik, lagun edo maitalerik gabe, bizi direla esaten du. Ezin jakin dezakete gerturatzen zaien jendea interes ezkutu bat dela eta hurbiltzen zaien edo ez, eta horren konfiantza eza eragiten die. Ez dakite norengan fidatu daitezkeen. Hori dela eta, ez dute maitasun segururik.

Finean, botere harreman baten gainean ez dago konfiantzazko harreman bat sortzerik. Boterearekiko dugun posizioak erabat baldintzatzen du urkoarekin nola harremanduko garen. Hori da, zehazki, Kollontaiek behin eta berriz erakusten diguna. Bere eleberrian zehar agerian uzten ditu maitasun erromantikoaren alde ilunenak. Azken batean, Visiliak duen harremanean ez daude biak maila berean: gizonak erabateko kontrola du harreman toxiko horretan. Eta horrek eragin zuzena du erlazioan: azkar esanda, gizonak nahi duena egiten du maitasunaren izenean, eta emakumearen jarduna kontrolatu eta mugatzen du horren arabera.

Kollontaik argi zuen iraultza ez zela orain arte mintzatzen ibili garen tiranoa garaitzearekin bukatzen: sistema kapitalistaren logika oso barneratua dugun heinean esfortzu handia egin behar da gure pentsatzeko eta harremantzeko era ere iraultzeko. Hain zuzen ere, horixe da 70. Hamarkadako feministek aldarrikatzen zutena: “pertsonala politikoa da”. Gure harremanei buruz hitz egiterakoan, gainera, maiz maitasuna sexua dagoen erlazioetara mugatzen dugu. Nire ustez, barneratuta dugun logika honi aurre egiteko lehen urratsa maitasuna hori baino askoz ere zabalagoa dela ulertzea da, ez dela soilik pelikuletako bikoteen maitasun itsua. Eta halaber, gainontzeko maitasunei garrantzia emateaz gain, aipaturiko botere harremanak hautsi behar dira, parekidetasuna lortu ahal izateko.

Argi dago, beraz, tiranoak garaitu behar badira ere, gure artean dauden tiraniak ere suntsitzea funtsezkoa dela (tiranoa bera garaitzea bezainbat). Morroitzarekin bukatu behar dugu, baina zentzu guztietan, bai sistema osoari begira bai eskala txikian. Horrela soilik egingo gara gure buruaren jabe, horrela soilik utziko diogu herri mozolotua izateari.

Aratz Fernandez de Pinedo Irastorza